# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2627

*1031/2015 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Miguel Hernández Fernández jauna Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatzen duena.*

Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren otsailaren 2ko 253/2015 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2015eko martxoaren 9ko EHAAn (46. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haren baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Miguel Hernández Fernández jauna deialdiko lanposturako egokia dela, eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusiak hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miguel Hernández Fernández jauna Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2015eko maiatzaren 15etik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.